

## 2018ko IRAILAREN 24ko HERRIKO KONTSEILUA

Hor zirenak: 9 - BARBIER, ETCHART-DUHALDE, ECHEVERTZ, eta OXARANGO andereak, eta ETCHEGARAY, BISCAY, HERNANDEZ, SOULIGNAC jaunak

Ezin etorria jakinarazia zutenak: 3 – ETCHEVERRY eta GARY andereak eta ETCHEBERRY eta BARNECHE jaunak

### 1. Langile baten lan denboraren emendatzea

Gehigarri bat sartuko da Audrey IPUYren kontratuan urriaren 1etik goiti, lan denbora 35 orenetara emendatzeko.

Araubideari jarraikiz, afera hori Herriarteko Batzorde Teknikoaren esku utzia izan da. Ez du kontrako abisurik eman.

### 2. Langile kopuruaren berrantolatzea

- 2. mailako teknika-laguntzaile postu baten kentzea 2018ko urriaren 1etik goiti (denbora ez osokoa; 17h30).

- teknika-laguntzaile iraunkor postu baten kentzea 2018ko urriaren 1etik goiti (denbora ez osokoa; 10 oren).

- teknika-laguntzaile postu baten kentzea 2018ko urriaren 1etik goiti (denbora ez osokoa; 17h30).

- animazio-laguntzaile postu ez iraunkorraren lan denboraren aldatzea: 24 orenetik 35 orenetara iraganen da.

Langile-kopuruaren taula berria:

Postu iraunkorrak	Dagokien maila	Saila	Aurrekontu kopurua	Bete kopurua	Asteko bana besteko lan denbora	Oinarria (postua kontratupeko langile bat enplegatuz bete baldin badaiteke)
<i>Herriko etxeko idazkaria</i>	<i>1. mailako erredaktore nagusia</i>	<i>B</i>	<i>1</i>	<i>1</i>	<i>Denbora osoz (35 oren)</i>	3-2. artikulua:
<i>Zerbitzu teknikoetako langilea</i>	<i>2. mailako teknika laguntzaile nagusia</i>	<i>C</i>	<i>1</i>	<i>1</i>	<i>Denbora osoz (35 oren)</i>	
<i>Zerbitzu teknikoetako langilea</i>	<i>Teknika laguntzailea</i>	<i>C</i>	<i>1</i>	<i>1</i>	<i>Denbora ez osoz (18 oren)</i>	
<i>Zerbitzu teknikoetako langilea</i>	<i>Teknika laguntzailea</i>	<i>C</i>	<i>1</i>	<i>1</i>	<i>Denbora ez osoz (24 oren)</i>	
<i>Lurraldeko administrazio laguntzailea</i>	<i>2. mailako administrazio laguntzaile nagusia</i>	<i>C</i>	<i>1</i>	<i>1</i>	<i>Denbora ez osoz (10 oren)</i>	
<i>Lurraldeko animazio laguntzailea</i>	<i>Animazio laguntzailea</i>	<i>C</i>	<i>1</i>	<i>1</i>	<i>Denbora osoz (35 oren)</i>	3-3-5. artikulua:

### 3. 2018ko aurrekontuaren 1. erabaki aldatzailea.

Herriko Kontseiluak 1. erabaki aldatzailea onartu du 2018ko aurrekontu nagusiarentzat, taula honetan agertzen den bezala:

#### Inbestimenduak-Gastuak

2313. artikulua:	Eskola publikoko obrak	10 000,00	156. ekintza
2315. artikulua:	Bideetako obrak	12 364,00	143. ekintza

#### Inbestimenduak-Sartzeak

10222. artikulua:	BEZaren ordainsari funtsa	9 964,00
10223. artikulua	Tokiko Ekipamendu Zerga	12 400,00

### 4. Aiherrako eskola pribatuaren IKKEri eta SEASKARI diru laguntza 2018/2019 ikasturterako

Herriko Kontseiluak, deliberatu ondoan (8 boz alde eta 1 kontra), erabaki du Aiherrako eskola pribatuaren Irakaskuntza Katolikoaren Kudeaketa Erakundeari (IKKE) 15 000 €-ko diru-laguntzaren ematea (625 € haur bakoitz) 2018/2019 ikasturtearentzat, eta 11 875 €-ko diru laguntza Seaskari (625 € haur bakoitz).

### 5. 16 - Diru-laguntzak elkarteei

2017an elkarteei eman diru-laguntzak oroitarazi ondoan, Herriko Kontseiluak deliberatu ondoan (8 boz alde eta 1 kontra), erabaki du elkarte hauei diru-laguntza baten ematea:

ABARRATIA	500,00 €
IRULEGIKO IRRATIA	150,00 €
ACCA LEHENA	210,00 €
ESKOLA PRIBATUKO BURASOEN ELKARTEA	520,00 €
AIHERRAKO CATM – PG	105,00 €
HERRIA	150,00 €
SOS LABORARI	180,00 €
LURZAINDIA	250,00 €
HANDISPORT PAYS BASQUE	200,00 €
EUSKALTZAINDIA (ezohikoa)	300,00 €

#### Gainerako gaiak:

- HTHPz puntua: eraikuntzen araudia

HTHPren ikerketak segitzen du, erreposki baina segurki. Eredu finkatzearen elementu nagusiak landu dira eta LuKEk erabaki egin beharren arabekoak izanen dira, laborantza-lurak zainduko dira, eta sareak (bereziki sanotze kolektiboa) iragaten dituen lursailei lehentasuna emanen zaie.

Eraikuntza araudiaren puntuak trenkatzekoak dira: bolumentria eta eraikuntzen finkatzea, hiri, arkitektura eta paisaia kalitatea: teilatuen norabidea, leihoen izaria eta kolorea, kanpoko leiho motak. Elementu horiek guztiak landuko dira herriekin eta Arkitektura Hirigintza eta Ingurumen Kontseiluaren laguntzarekin.

Hautetsiak oraingo etxeen izaera eta berezitasuna atxikitzen duen araudiaren alde dira, eboluzioei arrunt hetsi gabe.

- Lotizamenduko obrak: sareen lurperatzea gelditzen da egiteko, obrak urri hastapenean egin behar litezke eta lehen etxeak urri erditsutan eraikitzen hasi beharko litezke.
- Jostalekua: epeak errespetatuak dira, aurreikusiak ez ziren elektrizitate obrak egitea erabaki da argiteria egokia ukaiteko gisan (Etchepare enpresa), eta balio emendatze eta balio apaltze zenbait gertatu dira egitura nagusiarentzat eta zureriarentzat.
- Enedisekin elkarretaratzea: auzapezak txosten bat idatzi du deus baztertu gabe Enedisekin ukan hitzorduaren kontatzeko.

Herritarrek Enedisen gutun bat errezipitu edo errezipituko dute, kontagailu zaharraren ordezkatzeari nola iraganen den esplikatzeko, eta instalazioa egingen duen Sera-Airria sozietatearen (Donibane Lohizuneko) telefono-helbideak zehazteko.

Ondotik Airria herritarrekin harremanetan sartuko da noiz etorriko diren abisatzeko, eta hitzordua hartzeko sekula kontagailua ez balitz eskuragarri.

Herritarren ezezkoari dagokionaz: Enedisek kontuan hartu ditu herritarrek edo Herriko Etxeak igorri ezezko gutunak. Pertsona horiekin ere harremanetan sartuko da.

Enedisek berriz ere erran digu haien erantzunak ez dela ezezko prozedurarik, kontagailuak nahi ala ez ordeztu behar direla, baina jabego pribatura sartzeko debekua errespetatuko dutela. Hori eraikin publikoentzat ere bali da.

Aitzineko Herri Kontseiluetan bozkatu bi mozioak helarazi dizkiegu, eta errespetatuko dituzte.

Eraikin publikoak prozesuaren bukaeran tratatuko dira. Orduan beste hitzordu bat galdatuko diogu Enedisi puntuaren egiteko.

- Toponimiaz puntua: Herriko bideen izendapenaren ondotik, batzordea baserri-bideei buruz ari izan da lanean: 52 bide badira. Lan hori Euskaltzaindiak ontzat eman du euskararen aldetik eta Euskal Hirigune Elkargoko teknikariek antolaketa aldetik. Egutegia betetzen baldin bada, dena ontzat eman genezake heldu den Herriko Kontseiluan. Etxeak oraino zenbakitzekoak dira, eta etxe guztien izenak baieztatuzekoak dira.

- **Herriko Etxearen idekitze tenore berriak:**

Astearteetan 9:00-12:00 eta 14:00-18:00

Asteazkenetan 9:00-12:00

Ortziraletan 9:00-12:00 eta 14:00-19:00

**Auzapezaren permanentzia:**

Astearteetan 16:30-19:00

Larunbat goizetan 9:00-12:00

- Herriko etxeko idazkaria: Benoît TEILLET joaten da eta Nadège SARAGUETA berriz heldu.

Bilkura 22:45ean bururatu da